apirilak 24

# Ipuinak sortzen

## materiala

· Plastikozko tapoiak · Errotuladore iraunkorra

## azalpena

Errotuladorearekin tapoi bakoitzean zerbait marraztuko dugu, nahi duzuena izan daiteke: zuhaitza, animaliak, loreak, etxea, gaztelua, ilargia...

Tapoi hauek erabiliz ipuin bat sortuko dugu. Tapoi guztiei buelta emango diegu eta nahastu egingo ditugu. Bat aukeratu eta honi buelta emango diogu. Tapoiak duen marrazkian agertzen denarekin ipuin bat kontatzen hasiko gara. Gero beste tapoi bati buelta emango diogu eta agertzen den marrazkiko elementua gure ipuinean aipatu beharko dugu. Behin eta berriz errepikatuko dugu ipuina amaitu arte. Ondo pasa!

PARRANDAN
UDAL LUDOTEKA

Bidali zuen argazki edo bideoak 688 725 738 zenbakira edo ludoteka@soraluze.eus helbidera